

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu dute arazo bat dagoela komunitatean, Errekatxu 5. zk.aren eta Sansabururen arteko patioan. Diotenez, zikina dago, osasungaitza da eta arratoiak ere badaude.	Eremu pribatua da eta jabetzari eskatu zitzaion hau garbitzeko. Eta zuhaitzen adarrak mozteko. Hala ere, eskaera hau geldiarazi zen Udala negoziaketetan aritu zen jabetzarekin lur eremu hori emateko Helburuarekin eta bertan aparkaleku bat eraikitzeko. Gune honek aldaketak jasango ditu Errekatxu, Bista Eder eta Sansaburu kaleetan egingo den hiri garapenaren barruan. Arratoiden arazoari dagokionez, abeltzainak behin baino gehiagotan egin du lan eremu horretan.
Obrak	Auzotar batek salatzen du ez dagoela batere beheragunerik Polonia Etxeberriako igogailuaren inguruan, 3. zk.aren parean.	Soluzioa da pasabide goratu bat egitea Polonia Etxeberria 5 zenbakiaren parean. Baloratua dago eta hura gauzatzea aurrekontuaren disponibilitatearen arabera da.
Zerbitzuak	Auzoko espaloiak txukuntzea eskatu du auzotar batek. Dioenez, zikinak eta lirdingatsuak daude eta berriztea eskatu du.	Urrian, falch-a pasatu zen Ubitxan AEKako eskaileretatik, eta JBA errotuluen ondoko eskaileretan belar txarrak kendu ziren. Mankomunitateak desugertzeko makina pasatu zuen Ubitxa kaleko 7, 9, 11, 13 eta 15 zenbakietatik. Halaber, lan-agindua egin zen Ubitxa eta Polonia Etxeberriako eta Ubitxa eta Sostoako parkeetatik.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio auzoan dauden bankuak zaharrak direla.	Urte honetan zehar, auzo desberdinetako bakuak kentzen joan dira. 230 inguru aldatu dira eta gehiago jarriko direla aurreikusten da.
Zerbitzuak	Salatzen dute kioskoan dagoen horma zikina dagoela.	Hormak gune belztu batzuk ditu, añubean dagoelako. Aurrekontua eskatu da hura garbitzeko ura prezioz jautziz.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Txaltxa Zelai 2 zk.ko bizilagun batek dio bertan dauden ortuetako ura iragazten dela eta hezetasuna dagoela. Dioenez, ura ere ateratzen da hormatik.	2018ko apirilean, bisita egin zitzaion hezetasun-arazoak zituzten bi bizilagunei eta egiaztatu zen arazoa dela ura fatxadatik filtratzen dela; hortaz, udalak ez du inolako erantzukizunik ikusten salatutako egoeran. Hala ere, gogararazi behar da lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dutela ondasun horiek segurtasun, osasun eta begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizi-gaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.
Udaltzaingoa	Batek galdetu du ea Udaltzaingoa malguago joki dezakeen bigarren lerroan aparkatuta dauden ibilgailuekin.	Erantzun baiezkoa da, baina ezer ez egiterik ere badaukagu eta bakoitzak une horretan nahi duena egin dezala. Baina pertsona baten askatasuna ez dagoenez gainerakoenen gainetik, guztion eskubideak bermatu behar ditugu. Gainera, bigarren ilaran aparkatzea trafiko arau-hauste bat da eta 200 euroko zehapena du.
Udaltzaingoa	Auzotar bat kexu da leku gutxi dagoelako ibilgailuan bi norantzan ibiltzeko Bista Eder 2 zk. inguruan.	Egia da ez dagoela zabalera handirik bi ibilgailu gurutzatzeko, baina trafikoa arazo handirik gabe funtzionatzen du bi noranzkotan.
Udaltzaingoa	Salatu dute zenbat liskar egoten diren auzoan asteburuetan, diskotekak eraginda. Diotenez, droga mugitzen da inguru horretan eta zikinkeria handia egoten da.	Ertzaintza jakinaren gainean dago.
Udaltzaingoa	Kexu da ostalaritzan ez direlako betetzen ixteko ordutegiak eta zarata kanpotik entzuten dela.	Kontrolatu eta salatzen da osatalaritza-establezimenduak ixteko ordutegia.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Obrak	Galdetu dute ea zer egin behar den Mutiolan. Kexu da parkea ez delako irisgarria.	Berrurbanizatu egin behar da Mutiola kalea, koexistentzia gune gisa, eta parkea, gaur egun jada irisgarria dena, berriztu egingo da. Obra aurrekontuaren disponibilitatearen mende egingo da.
Zerbitzuak	Auzokide batek salatu du Urki behealdeko espaloia oso labainkorra dela.	Irailean pasatu zen falch-a.
Obrak	Auzotar batek dio Urkira igotzeko kalea egoera txarrean dagoela. Hobetzea eskatu du.	Asfaltatu-lanen planean sartuta dago. 2019-20 urteetan egingo da.
Zerbitzuak	Egiten den inausketa ez dela nahikoa salatu du auzotar batek.	Urkin egiten den inausketa gainontzeko auzoetan egiten den inausketa bera da.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Urkin pintada asko daudela dio.	Grafitiak erretiratzeko kanpainak egin dira, bai leku publikoetan bai fatxada pribatuetan. Pertsona bat grafiti bat egiten identifikatuz gero, zehapen-espiediente bat hasten da eta agindua ematen zaio pintaketa garbitzeko gastua ordaintzeko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio <i>Nuevo</i> tabernaren eta eskolen arteko arrapala mekanikoa piztuta dagoela 06:30etik 23:00etara. Bera arrapalara ematen duten etxebizitza batean bizi da; salatzen du mekanismoak zarata handia ateratzen duela eta konpontzeko eskatu du.	Soinu-proba bat egin dugu Hirigintza sailean eta dagokion emaitza jaso ostean, mantenimendu lanak egiten dituen enpresa beste neurketa bat egin du. Ikusi da soinuak nibelak gainditzen dituela eta katea aldatu egingo da datozen hilabeteotan. Hala ere, bitartean soinuak eragin ez dezan, oraingo katea estutu egingo da.
Zerbitzuak	Eskatu dute Urkiko merenderoan dauden mahaiak sostengatzen dituzten zementuzko plataformak zabaltzeko.	Lan-agindu bat egin da plataforma bat eraikitzeko; hala, gurgildun aulkian dabilen edonork merenderoko mahaietako

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
		batera gutxienez iristeko aukera izateko. Gehiago behar izanez gero, kontuan hartuko da gainerako mahaietan ere gauza bera egiteko.
Obrak	Txaltxazelai inguruko auzotar batek dio bere garajera joateko brigadaren biltegi gaineko patiotik sartu behar dela eta ia ezin dela autoz joan. Dioenez, zulo pila bat daude bidean.	Zerbitzuen sailean partxeo-lanak egin dira. Plazoletaren eraberritze integrala 2019ko udaberrian egingo da. Proiektua idatzita dago eta azaroan aterako da haren lizitazioa.
Udaltzaingoa	Eskatu dute Txaltxazelaiko patiora joateko espaloia kentzeko eta, haren ordeztu, lerro hori bat marrazteko, inguruan aparkatu nahi duenak leku gehiago izan dezan.	Eskaera honekin bi-hiru aparkaleku ezabatuko lirateke. Agian espaloien ertz-muga moztuta hobetu egingo litzateke bira.
Zerbitzuak	Auzotar batek galdetu du ea ez irristatzeko tratamendurik egin daitekeen Txaltxazelaiko jaitsieratik Eibarko Txikitara.	Miguel de Aguinaga plazarekin izkina egiten duen espaloi-zatia berriztu egingo da plaza horretan datorren udaberrian egingo diren obrekin. Gainerako espaloietan, irristatzearen aurkako tratamendua emango da.
Udaltzaingoa	Salatu dute beti daudela autoak aparkatuta Migel Aginaga eta Bistaederreko bihurtzeko edukiontzien paraleloan, eta egoera horrek gidariak kontrako errailetik joatera behartzen dituela. Gainera, eskatu du bi errailak ondo mugatzeko.	Kontrolatzen ari da gaia eta salatzen dira gaizki aparkatzen diren ibilgailuak. Erreien mugak zedarritzea zaila da, zeren punturen batean galtzadaren zabalera ez baita 5 metrotik gorakoa izango.
Udaltzaingoa	Salatu du jendeak Txaltxazelaiko patioan egiten dituela bere beharrak.	Antzemanez gero, pertsona bat bere behar fisiologikoak bide publikoan egiten ari dela, identifikatu eta zehapen-espeditatea zabaltzen zaio.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du eskailera mekanikoak ez geratzeko 23:00etan, batez ere, asteburuetan. Eskatu du ordutegia luzatzea eta STOP & GO sistema erabiltzea.	Igogailuei dagokienez, lan egiten ari gara pixkanaka guztiak 24 orduz martxan ego daitezen herritarrek errespetatzen badituzte, baina eskaileren kasuan, ez da hain erraza. Makinek eta kateek soinua ateratzen dute, batez ere, gauean, eta, ondorioz, eskaileraren ondoan bizi diren bizilagunei molesta dakieke.
Udaltzaingoa/ Obrak/ Hirigintza	Salatu dute auzoan dagoen blokeoa zirkulazioari dagokionez. Diotenez, kamioi pila bat dabil eta auto asko, bigarren lerroan. Auzoari irteeraren bat eraikitzeke eskatu dute.	Ez da ohikoa trafiko-kolapsoak sortzea. Obra edo lanengatik zirkulazioa eragozten denean, berrantolatu egiten da trafikoa zirkulazioa ahalbidetzeko. Dena den, Plan Nagusiaren berrikusketan, sakon aztertuko da.
Alkatetza	Auzokide batek galdetu du ea noiz jarriko den NANaren bulegoa Eibarren.	NANA eta Pasaportearen tramitatzeko bulegoa 2018ko urtarrilaren 10ean inauguratu zen eta hurrengo egunean hasi zen martxan.
Zerbitzuak	Auzokide batek jakinarazi du argi gehiago behar dela <i>Cepa</i> tabernaren ondoan dauden eskaileretan.	Lan-agindua eman zen argi horien berrikusketa eta konponketa egiteko. Berrikusketa eginda, egiaztatu zen ondo funtzionatzen dutela denek.
Zerbitzuak	Kexu da <i>Cepa</i> taberna ondoko eskaileretan dagoen arbola jausita dagoela eta botatzeko eskatu du.	Arbola ez dago jausita, hala da. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen hura erretiratzea.
Udaltzaingoa	Auzotar batek salatu du zintarri bat laga dela Polonia Etxeberriako espaloian, 28 zk.an, eta oinezkoak errepidetik ibiltzera derrigortzen dituela horrek.	Espaloia zintarriak aldatzea ez dagokio Udaltzaingoari. Auzozainak ikuskaritza egingo du eta Zerbitzu sailari jakinaraziko dio.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Bizilagun batek dio ke eta usain pila bat egoten dela jendeak Urkiko merenderoetan kozinatzen duenean. Etxeko leihoak zabaldu ere ezin izaten dituela egin dio.	Irtenbide zaileko arazoa da, merenderoaren ondoan bizitzearen Ondorioak dira-eta. Hala ere, erabiltzaileen eta bizilagunen arteko bizikidetzaz errazte aldera, kartel bat jarri da, 22:00etatik aurrera parrillak erabiltzea eta musika jartzea debekatuz.
Zerbitzuak	Unberako bidea konpontzeko eskatu du auzokide batek. Hondoratua eta belarrez josita dagoela dio.	Aipatzen den bidea landa-bidea da, eta, hortaz, ez dagokio Udalari hura konpontzea. Nolanahi ere, baziren zulo batzuk galtzadan Unbera iristeko Ubitxatik, eta 2018ko apirilaren 19an eta 26an konpondu ziren.
Zerbitzuak	Eibarko Txikitoko eskailera garbitzeko eskatu du batek. Salatu du pixatokia dela eta Mankomunitatea ez dela 6. zk.ko atearen ingurutik.	Mankomunitateari abisua eman zitzaion eta jakinarazi du eremu horretako garbiketa astean 6 egunetan egiten dela, astero egiten da lana mahukarekin, jai-egunetan indartuz. Gainera, eremu horretako paretetan pixa uxatzen duen tratamendua ematea pentsatzen ari da.
Udaltzaingoa	Auzotar batek dio San Juanetan komunak txoznen atzealdean jartzen direla, leku apartatu batean, eta salatu du jendeak eskaileretan egiten dituela bere beharrak.	Antzemanez gero, pertsona bat bere behar fisiologikoak bide publikoan egiten ari dela, identifikatu eta zehapen-espedita zabalitzen zaio.
Alkatetza	Bizilagun bat kexu da San Juanetan jartzen den txoznak leku guztia okupatzen duelako.	Beti bermatzen da oinezkoen pasabidea.
Zerbitzuak	Txaltxazelaira ematen duten eskailera meknaikoen eta normalen artean belarra hazten ari dela jakinarazi dute.	2018ko abuztuan belarraren aurkako tratamendua bota zen bertan.
Udaltzaingoa	Txaltxazelai inguruan kaka pila bat dagoela diote.	Ikusiz gero pertsona batek ez dituela txakurrak egindako kakak batzen, identifikatu egiten da eta zehapen-espedita bat

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
		zabaltzen da.
Zerbitzuak/ Obrak	Bistaederretik Eulogio Garatera doan igogailuaren irteeraren eta Errekatxurako bidearen arteko gunea egoera txarrean dagoela diote. Jendea labaindu egiten dela diote eta argia behar dela.	2018ko urtarrilaren 23an, argi bat jarriz zen igogailu horren sarreran. Eta azaroaren erdialdera, argiteria publikoa konpondu zen Eulogio Garate kaleko igogailuaren ondoan, argiak amatuta zeuden eta. Irrist egiten duen lurzoruari dagokionez, Mankomunitatera igorri da kexa, espaloian garbiketa sakon bat egiteko eta parkean urez garbitzeko. Eulogio Garatetik Errekatxura jaisten den bidea ere berrikusiko da.
Zerbitzuak	Errekatxuko iturria utzia, zikina eta apurtuta dagoela salatu dute.	Ingura falch-arekin garbitu da. Lan-agindua egin da ingurua berrikusi eta konpontzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek dio iturri ostean dagoen pasealekua utzia eta labainkor dagoela eta barandak egoera txarrean daudela.	Gune horretan, zoruak ez labaintzeko tratamendua eman da behin baino gehiagotan. Azkeneko aldiz, 2016 urtean.
Alkatetza	Bidebarrieta eta Errakutxu arteko pasabidean zerbait egiteko eskatu du auzotar batek.	2018ko ekainean akordio batera iritsi zen sustapen-enpresa batekin ingurua berrurbanizatzeko. Lanen artean aurreikusten da kale bien artean pasabide bat eraikitzea. Era berean, ukitutako guneko bzilagunei behar bezala jakinarazi zitzairen zer lan egingo ziren, 2018ko uztailaren 9an Udaletxean egin zen bilera batean.
Zerbitzuak	Kexu da Errekatxuko horma oso zikina eta lirdingatsua dagoelako.	Hormak gunea beltz batzuk ditu, añubean dagoelako. Aurrekontua eskatu da ingurua garbitzeko ura prezioz jaurtiz.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Portalearen eta Errekatxuren arteko bihurtzea lordingatsua dagoela diote; baita Montecasinoko parkea ere.	Mankomunitatera igorri da kexa, espaloian garbiketa sakon bat egiteko eta parkean urez garbitzeko.
Zerbitzuak	Kexu dira Errekatxu inguruan zaborrekin arazoa dagoelako. Altzari asko edozein unetan ateratzen dira eta espaloietan dagoelako.	Gizalege arazo bat da. Mankomunitateak kartelak jarri ditu Zaborrontzietan. Bertan, altzairuak noiz atera daitezkeen eta edozein zalantza argitzeko, Mankomunitatearen telefono zenbakia ere agertzen da eta, gainera, Udaltzaingoa arauak betetzen direla ziurtatzen da. Mankomunitateak zigorrak ezarriko dizkie arauak betetzen ez dituzten pertsonen.
Obrak	Errekatxun zebra-bide bat eraikitzea eskatu dute.	Errekatxuko zebra-bide guztiak goratu egin dira.
Obrak	Eulogio Garatera ematen duen igogailuaren igarobidea egoera txarrean dagoela salatu du batek.	Apurtuta zeuden hustubideak konpondu dira.
Zerbitzuak	Aurrezki-kutxaren parean dagoen sarearen estalkiak, autoak pasatzean, zarata handia ateratzen duela salatu dute.	Arketa ur beltzeta da; beraz, Gipuzkoako Urak entitateari dagokio hori konpontzea. 2018ko ekainean konpondu zen.
Udaltzaingoa	Txakurrak solte lagatzen direla salatu dute.	Ez dago txakurra lotuta eramateko obligaziorik; soilik kontrolatzeko obligazioa. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren kasuan, lotuta eta mozalarekin eraman behar dira.
Udaltzaingoa	Urkiko jubilatutuen egoitza 17. zk.aren espaloietan kokatu daudela diote.	Ikusiz gero pertsona batek ez dituela txakurrak egindako kakak batzen, identifikatu egiten da eta zehapen-espeditente bat zabaltzen da.



# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2017/11/22

Saila	Laburpena	
Alkatetza/ Udaltzaingoa	Auzotar batek eskatu du oinezkoentzako ordutegia mugatzeko, neguko igandeetan. Izan ere, erdigunetik zirkulatu ezin denean, auzoek trafiko-pilaketa handiago izaten dute.	Udaltzaingoa agindu zaio urtarriletik aurrerako igandeetan oinezkoentzako ordutegia 21:00etan bertan behera uzteko.
Obrak	Auzotar batek eskatu du berdegune bat egiteko Montecasinoko parkean eta ez aparkaleku bat.	Ez da inguru horretan lanik egingo, berriz ere sustapen pribatuak bere gain hartzen ari delako Errekatxuko eragiketa urbanistikoa.
Obrak/ Zerbitzuak	Errekatxuko zoladuraren pikorrak solte daudela dio eta espaloiko baldosak apurtuta.	Apurtutako baldosak ordeztu egin dira eta laster hasiko dira asfaltatua partxeatzeko lanak.